

# EUSKARAZ HITZ EGIN NAHI AL DUZU?

(http://dobera.com/artikulua-ikusi.php?id=107)



(http://hernanikokronika.tumblr.com/)

(/)

[HERNANI \(/albisteak/hernani/\)](#)      [GOIZUETA \(/albisteak/goizueta/\)](#)

[ARANO \(/albisteak/arano/\)](#)      [EREÑOTZU \(/albisteak/erenozu/\)](#)

[ASTIGARRAGA \(/albisteak/astigarraga/\)](#)

[Albisteak \(/albisteak/astigarraga/albisteak/\)](#)      [Elkarrizketak \(/albisteak/astigarraga/elkarrizketa/\)](#)

[Jasota Bezala \(/albisteak/astigarraga/jbezala/\)](#)      [Bereziak \(/albisteak/astigarraga/sberezia/\)](#)

[Dokumentuak \(/albisteak/astigarraga/dokumentua/\)](#)      [Eskelak \(/eskelak/\)](#)      [Agenda \(/agenda/\)](#)      [Bideoak \(/bideoak/\)](#)      [Argazkiak \(/argazkiak/\)](#)

[Herritarren txokoa \(/albisteak/herritarrentxokoa/\)](#)

Publizitatea (/static/pdf/publizitatea.pdf/)	Bereziki egin (/albisteak/)	Bilatu (/zss/)
--	-----------------------------	----------------

Gaur	Bihar	Etzi
14°	13°	10°
8°	9°	2°

(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona\_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)

(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona\_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)Aemet (http://www.aemet.es) eskaintako datuak

## Hemen da «Gure Sagardo Berria!»

«Txinpartatsua, edan erraza, borobilagoa eta fruta usainduna» da aurtengo sagardoa, sagardogileen esanetan. Loreak pelikulako protagonistak izan dira probatzen aurrenak, gaur, Bereziartua sagardotegian.

**ASTIGARRAGA**  
2015/01/14 17:23 Asteazkena

Hemen da aurtengo sagardo berria! Eguerdiko 12:00etan prentsaurrekoa eman dute sagardogileek Astigarragako Kultur Etxean, aurtengo sagardoaren ezaugarrien berri emateko. Ondoren, sagarrondo bat landatu dute, Sagardoetxean, Loreak pelikulako hiru protagonistek; Itziar Ituñok, Nagore Aranburuk eta Itziar Aizpuruk.

Aurreneko txotxa Bereziartua sagardotegian egin da, segidan. Baina, aurretik, ekitaldi berezi baten txanda izan da. Arizkungo dantzariak bertako sagar-dantza dantzatu dute, eta, ondoren, sagardogileak soka-dantzara bildu dira, kupeletara gerturatzeko. Bertan probatu dute aurtengo sagardoa Loreak pelikulako hiru protagonistek.

### Bertako sagarra bultzatzea, erronka

Prentsaurrekoarekin eman zaio hasiera egunari. Andoni Gartzia Astigarragako alkateak «elkarlana» azpimarratu nahi izan du. «Sagardoaren Lurraldean Hernaniko, Usurbilgo eta Azkaineko sagardotegi bana ere badaude. Inguruko herriein elkarlanean hasi nahi dugu, ditugun aberastasunak konpartitu eta eskaintza hobea egiteko».

Sagarduneko sagardogileen bozeramaileak, berriz, Joxe Angel Goñik, sagardoaren ezaugarriak azaldu ditu: «txinpartatsua, edan erraza, borobilagoa eta fruta usainduna. Zertxobait aurreratu da, eta edateko punttu-punttuan dago».

albisteak/TXOTX IREKIERA

### ASTIGARRAGA

(/m/aldizkaria/None/pdf/Astigarragako%20urtarrilak%2014

**Urtarrilak 14**

### HERNANI

(/m/aldizkaria/None/pdf/Urtarrilak%2014\_internet.pdf)

Bertan izan dira, baita ere, Jon Uriguen, Gipuzkoako Berrikuntza eta Landa Garapeneko Diputatua; Peli Manterola, Eusko Jaurlaritzako Elikagai Industriaren Kalitaterako Zuzendaria; Koldo Lizarralde, Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Zuzendaria; eta Arantxa Madariaga, Basque Tourreko zuzendaria. Azaldu dutenaren arabera, «aurtengo sagardoaren %45 bertako sagarrarekin egin da». Horrekin lotuta, azaldu dute bertako sagarraren aldeko apustua egiten ari direla, eta espero dutela 10 urtera bertako sagar nahikoa izatea sagardo guztia egiteko. Bestalde, azken urteetan sagardoaren kalitateak gora egin duela nabarmendu dute, eta lan horretan ari direla, prozesu osoa kontrolatzeko. Fraisoro laborategiko dastaketa panelak Enac ziurtagiria lortu izanaren garrantzia ere nabarmendu dute, kalitaterik goreneko sagardoa lortzeko lanean jarraitzeko.

### Hiru Lore, txotx egiten

Loreak pelikulako hiru protagonistek ere hitz egin dute prentsaurrekoan. Gonbidapenarekin eskertuta eta hunkituta azaldu dira. Itziar Aizpuruk halaxe azaldu du: «badut gogoa sagardotegira joateko. Aurreneko aldia izango da! Eta eskertzen dut gonbidapena. Ikusi dut gehienetan gizasemeak gonbidatu dituzuela, eta garaia zen Lore sorta bat jartzekoa hemen! Espero dudana da Loreakek izan duen arrakasta hau sagardoak ere urte guztian izatea».

- **Txotx irekierako argazki-bilduma** (<http://www.kronika.net/argazkiak/albuma/astigarragako-txotx-irekiera-64/>)

### BIDEOAK



(<http://www.youtube.com/embed/xWan7pbnTCU>)

Sartu Tweet 2

Izena\*

Eposta helbidea\*

Iruzkina\*

Bidali

Aurreikusi

### Azken argazkiak (/argazkiak/)



Indarkeria sextistaren ...



Pasarela Hernani 2014

### Azken bideoak

Urtarrilak 14



([http://www.kronika.net/m/fitxategiak/hernani/2015-01-09/PDF%20fitxategia/Txotx%20denboraldia%202015\\_1.p](http://www.kronika.net/m/fitxategiak/hernani/2015-01-09/PDF%20fitxategia/Txotx%20denboraldia%202015_1.p))

Follow

**Tweets**

**K** Urumeako Kronika @KronikaNet 1h  
Saioa, larunbatean #astigarraga #bertsosaioa #oialumezar dlvr.it/865IzQ

**K** Urumeako Kronika @KronikaNet 2h  
Bilera asteartean #astigarraga #galtzaur dlvr.it/864x7s

**K** Urumeako Kronika @KronikaNet 2h  
Hemen da «Gure Sagardo Berria!» #astigarraga #txotxirekiera @sagarlur @Loreakfilm @GSagardotegiak @AstiarrakoUdala dlvr.it/864VWW  
Expand

**K** Urumeako Kronika @KronikaNet 2h  
Beste sei bilera egingo dira auzoz auzo, bihartik datorren asteazkenera #astigarraga @AstiarrakoUdala... dlvr.it/864VSc

**K** Urumeako Kronika @KronikaNet 3h

Tweet to @KronikaNet